

**BAZEN BEHIN HERRI BAT**  
**(A. MIGEL MARIAREN OROIPENEZ)**

2011ko irailaren 30ean zendu zen Gasteizen A. Migel Maria karmeldarra (Manuel Juaristi), beste gauza batzuen artean, Markina-Xemeingo Zerutxu Ikastolaren eta Bertsolari Egunaren sortzaile eta bultzatzailea izan zena.

Gure fraide euskaltzalea zendu eta astebetere edo, lantxo bat idatzi nuen goiko izenburu horrekin euskara hutsez argitaratzen diren *Berria* eta Markina-Xemeingo *Hitzara* bidaltzeko asmoz eta gure *Karmel* honetan argitaratzea ere ahaztu gabe. *Hitzak* nik bidalitakoa oinarritzat hartuz, erreportaje eran argitaratu zuen; egoki eta txukun. *Fraide ameslari eta euskaltzalea* jarri zion izenburua. *Karmel* aldizkari honetarako, prestatu nituen bi bertsoetatik luzeena hautatu dut, argazkiz osaturik argitaratu nahi nukeena.

Bazen behin herri bat mendi artean gordea. Jauregi, eliza, pilotaleku, zelai zabal, kale zahar eta monumentu ederrez jantzia; itsasora bidean ibai batek zeharkatzen zuena; Bizkaiko lurrean kokatua, baina Gipuzkoako muga-mugan, Probintziari esku emana edota hartatik mendi-lerroz berezia.

Herri horrek euskara ederra mintzatzen zelako ospea zuen antzina zaharretik. Hala ere, urte luzeetan erdal haizeak jo zuen gogor. Zergatik? Agian, euskara beti arrotz izan zaien

jauntxoak batetik, Ipar Ameriketara joaten ziren pilotarien kosmopolita airea bestetik, edota ez dakit nik zergatik, baina herri honetako kale zaharrak, zelaia eta pilotaleku inguruko plaza erdaraz mintzatzen ziren, euskara ia-ia ahazteraino...

Bazen herri honetan fraide karmeldarren komentu bat ere, oraindik tinko dirauena. Eta komentu honetan, beste batzuen artean, fraide bat, gipuzkoarra, euskal hiztun fina eta euskaltzalea, kultura zabalekoa eta herrian urte asko zeramatzana. Honek min zuen bihotzean erdal haizearen eraginez euskara galzorian zelako eta dei egin zuen. Dei larria, premia gorrian zen batek egin ohi duen bezalakoa. Euskaltzaleen ateetan jo zuen, baina baita erakundeen eta agintarien ateetan ere. Zorionez, euskaltzaleek eta arbasoengandik zetorren ondarea maite zuten askok entzun zioten, baita herriko alkateak ere, orduko erregimenak izendatua izan arren. Baina sufrikario luze eta la-tza igaro beharra zen oraindik, galera hari erremedioa jartzeko bidea egin arte. Eragozpen eta debeku ugari gainditu beharra.

Haurrengandik hasita, apurka-apurka, egoerari buelta eman eta etorkizun euskalduna finkatu nahi zen. Herriak, baita parte zaharrak ere, iragan hurbila euskaldun-euskalduna zuen eta ia euskaldun huts zirauten inguruko auzo eta herriek lagundurik, ametsa egia bihurtu zen.

Gure fraide honek bazuen beste amets bat ere, bertsolaritza loturikoa. Bertsolarien eguna sortu nahi zuen, hauek biltzeko, beraien gauza eta arazoez hitz egiteko, eta bertsotan eginez eta elkarrekin bazkalduz jai eder bat igarotzeko, azken batean, bertsolarien giroa suspertzeko. Hau ere lortu zuen gauzatzea eta hainbat urtez jarraitu zuten Euskal Herriko bertsolarien gure fraide honen deira komentuan biltzen harmonia ederrean, gorabehera txiki batzuk tartean izan arren.

Gero “Mater et Magistra” eta “Pacem in terris” Entzikliken harian, apaizen eliz hitzaldietan gai sozialak leku zabalagoa hartu zuen eta, horrekin batera, diktaduraren bidegabekeriak ere maiz



salatzen ziren. Baina elizetan ere, belarriak erne zituela izaten zen erregimenaren aldeko jendea eta behin gure fraideari entzun eta Gotzaindegian jarri zuten salaketa. Gotzainak zigortu egin zuen eta harrezkero ez zuen onik izan... Kezkaz, halako giro garratzak gainez eginda, gaixorik, apurka-apurka urrundu egin zen lehengo amets eta egitasmoetatik. Erretiratu egin zen; gaixotasunak edo gehiago ezinak erretirora eramane zuen. Urte asko eman ditu Corellan eta azkenekoak Gasteizko Karmeldarren gaixo-etxean. 2011ko irailaren 30ean zendu zen.

Ipuin edo igarkizun luze antzera agerturiko herria *Markina-Xemein* da; eta fraide ameslari eta euskaltzalea, *Aita Migel Maria*.

Orain mozturiko antzeko hori kenduz, ager ditzagun pertsonaiaren hainbat xehetasun, labur bada ere.

Haren izen erlijiosoak A. Migel Maria Jesus Haurrarena zen; izen zibila, berriz, Manuel Juaristi Azpiazu. Azkoitian jaio zen 1923ko otsailaren 2an. Jaioterrian egin zituen lehen ikasketak La Salleko Anaien ikastetxean eta 1934an, 11 urte zituela, Zornotzako ikastetxean sartu zen latin eta giza zientziak ikasteko. Gerra sortu zenean, haren ondorioen beldurrez, mutikoak nor bere etxera bidali zituzten, baina Manuel Juaristi Zornotzan gelditu zen, A. Anjel Iturbe ikastetxeko zuzendari eta herriki-deak eskaturik; egun batzuk geroago biak elkarrekin Azkoitira joatekotan ziren, baina ez zuten asmo hori bete ahal izan, gerrako fronteak aurrera eginik, Azkoitia francotarren mende geratu zelako.

Segurtasunagatik, 1936ko urrian, Etxanoko erretore-etxera joateko aholkua eman zioten. Etxe horretan izan zuten babesa Larreako nobizioak beren Maisu A. Jose Domingo Ugartetxea musikari markinarrarekin. Lo egitera, berriz, Manuel Juaristi eta honen egoera berean zegoen beste mutiko gasteiztar bat beste etxe batera joaten ziren, Martzelino Agirregokoaren etxera. Oro har oroipen onak gordetzen zituen hango egonaldiaz,

hurbileko testigu izatea egokitu zitzaion Durangoko eta Gernikako bonbardaketez izan ezik.

Karmeloko kartzelara bisitak egitera jendea eramaten zuen taxilari azkoitiar bati eskatu zion haren aitak semearen berri jakiteko eta hala, nagusien baimena izan ondoren, etxera eramaten zuen, Azkoitira. Han lau urte igaro zituen, Nafarroako Alesbesko ikastetxean sartzeko aukera izan arte. Hau 1941eko urtarrilaren 4an izan zen. 1941eko urriaren 8an hartu zuen abitua Larrean eta urtebete geroago egin zuen profesaria Larrean bertan 1942ko urriaren 12an. Iruñean egin zituen Filosofiako 1. eta 2. urteak, Filosofiako 3.a eta Teologiako 1.a, berriz, Gasteizen eta Teologiako 2., 3. eta 4.a Begoñan. Gasteizen apaiz egin zen 1949ko ekainaren 29an. Bere bizitzako urterik gehienak eta emankorrenak, esango nuke, Markina-Xemeingo karmeldarretan igaro zituen: 1950etik 1972ra bitartean lehenengo aldian, 1963tik 1969ra komunitateko nagusi izanez. Donostiako nagusi izan zen 1972tik 1977ra bitartean eta ondoren Markina-Xemeinera itzuli zen; bigarren aldi honetan 1990era arte bizi izan zen komentu honetan. Urte horretan Corellara bidali zuten eta azken urteak Gasteizko Karmeldarren gaixo-etxean igaro zituen, baina Corellako komunitatekoa izanik.

Lan handia egin zuen Markina-Xemeinen. Apaiz lanean, garai hartan karmeldarren elizetan kofradiak zeuden indarrean, tradizio handikoak, eta hauetako batzuetan batez ere, lan espiritual eta erlijiosoaz gain, kulturala ere egin ohi zen. Esaterako, Pragako Jesus Haurraren Kofradia oso indartsua zen Markina-Xemeingo Karmenen. Aurretik A. Zezilio aramaioarrak lorratz sendoa utzi zuen eta A. Migel Mariak hartu zuen haren oinordetza. Umeen artean egiten zen apostolutza eta lan kulturalaren osagarri etorri zen Zerutxu Ikastola A. Zezilioaren izenez sortu zutena. A. Migel Maria hizlari fina zen euskaraz nahiz gaztelaniaz, baina haren izena, apaiz bezala elizkizunetan eta egiten zuen lanaz gainera, ekintza kulturaleri eta berak sortu zituen bi erakunderi loturik eratuko da: *ZERUTXU IKASTOLARI* eta

BERTSOLARI EGUNARI. Baita kontuan izan behar dugu, barrurantz begira, profesadun gazteen irakaslea ere izan zela urte askoan, batez ere Euskarako eta Literaturako irakaslea. Gauza hauetaz, *Nire Sasoiko Markina-Xemein* liburuan (2009an Markina-Xemeingo Udalak argitaratua, 487 or.) hartaz egindako zenbait aipamen aldatuko ditut hona:

### **Profesadun gazteen irakaslea**

*Euskera eguenetan izaten genduan. A. Migel Maria (Manuel Juaristi) zan gure irakaslea, baita literaturakoa be. Orduan entzun genduzan lehenengoz hainbat izen, gerora guretzat ezagun bihurtu ziranak: Etxepare, Oihenart, Axular, Etxeberri Ziburukoa, Etxeberri Sarakoa, Larramendi, Mendiburu, Kardaberaz, Ubillos, Gerriko, Mogeldarrak (Juan Antonio, Juan Jose eta Bizenta), Agirre Asteasukoa, Frai Bartolome, Astarloo, Añibarro... Izen horreek gure hizkuntza idatziaren lehenengoetariko maisu eta bidegileak izanik, jakin beharrekoak. Baina denboran hurragokoak aitatzen ziran gehiago: Azkue, Olabide, Txomin Agirre, Kirikiño, Lizardi, Lauaxeta. Oraindino gehiago, beharbada, sasoi haretan bizi ziran maisuak, Euskaltzaindikoak etab.: Nikolas Hormaetxea "Orixe", Luis Mitxelena, Manuel Lekuona, Luis Villasante, Salvatore Mitxelena, Ignazio Maria Manzisidor, Plazido Mujika, Lino Akesolo, Santi Onaindia... Euskerazko eskoletan, esango neuke, gramatika eta teoriak irakastea baino gehiago, euskaltzaletasuna piztea zala irakaslearen helburua. Munduko hainbat jakitunek euskera goresteko esanikoak bilduta zituan gure irakasleak; han eta hemen, egunkari zati eta bestelako paperetan bilduta. Hareek irakurri abala, amets ez eta euskaltzaletasunez bero-bero jarri obi zan gazteon bihotza.*

### **"Zerutxu" Ikastola**

*Herritar askoren ametsak, etorkizunerako asmoak, horren inguruan batu ziran. Kultura-abentura barri legez agertu ja-*

*ken proiektu hori Markina-Xemeingo hainbat gurasori, sustrietan tinko eusteko eta bizi barria emoteko aurretikoengandik jasoriko oinordetza aberatsari. Elkar hartu genduan herri honetan bizi ginan askok eta askok, bertakoak eta kanpotik etorriak, umeak, gazteak, helduak, zabarrak... Baina proiektu liluragarri hau Karmeldarren komentuan sortu zan. A. Migel Maria (Manuel Juaristi) zan, izatez, proiektu honen aita; halkan be, hasiera-hasieratik batu jakozan ingurura laguntzaile on-onak, ezin ordezkaturikoak: umeen gurasoak eta andereñoak. Gurasoen esku-hartzea berariaz azpimarratzekoa da. Ez da, gero, gauza txikia eta merezimendurik bakoa, ia guztia aurka ebela, kultura-abentura hari baldintzarik bako baietza emotea! Fedea izan eben etorkizunean, itxura baten iluna eta bape ziurra ez zan etorkizunean. Bibotzak agintzen eutsenera, ametsezko zeruertzer begira jarri ziran. Bizitzan ausartak izan behar ei dogu. Baina gauza bat da ondasun materialekin jokatzeta eta beste bat pertsonekin, munduan maiteen diran umetxuekin, jokatzeta.*

*Mendeetan iraunez geureganaino jatorkun euskal ondarea makal, gaitzak jota egoala esatea ez dirudi larregi esatea danik. Urteetan eta urteetan, lurak sakonerarik ez eta, haitz bitarte latzean sustraiak kokatuz ozta-ozta bizi dan txara okerokerra emoten eban.*

*Ikastolak eregiteko lehenengo ahaleginetan G. Arestiren poema ospetsu haretan –Nire Aitaren Etxea– izenekoan adierazten dan antzeko airea sumatzen zan: galtzeko arriskuan zan ondarea gorde nabia; geure espirituari itsatsia dogun kultura indarberritu eta berpiztu nabia; asabengandik jatorkun izaera sendo ezarri arte ez dogula sekula etsiko...*

*Karmengo artxiboan mekanografiaturik gordetzen diran paperetan ikusi leitekenez, horretan aurrelaritzat hartu geinkezan Justo Arrieta berriko alkateak eta A. Migel Maria (Manuel Juaristi) Karmengo Nagusiak lehenengo elkarriketa eta*

*hartu-emonak izan zituen. Zer zan, izatez, elkarrizketa honetan erabili eben gai nagusia? Markina-Xemein eta ingurua euskera onaren gunetzat jotzen zala aspaldidanik; inguru honetako euskerak ospe handia ebala Euskal Herri osoan; eta halkan be, Markina-Xemein euskera galtzeko arrisku larrian zala une haretan. Ezer egin ezik, euskerarenak laster egingo ebala herri honetan.*

*Zerutxu Ikastolaren lehenengo ikasturtea 1964-1965ekoa izan zan. Karmengo Komentuko gela baten emon jakon hasiera.*

### **Zerutxu Kultura Elkarte**

*Zerutxu Ikastola eragozpen eta debeku artean bidea egin ezinik itzi dogu; ikastola legezatzeko ahaleginak hutsalak izan ziran behin eta barriro... Bitartean Zerutxu Kultura Elkarte sortzeko baimena eskatu zan. Ikastola lehenengo-lehenengotik bere sortzaileak, A. Migel Mariak, eroan eban amak umea eskutik legez. Gurasoen eta beste pertsona eta erakunde batzuen erabateko laguntza izan eban, baina Ikastola pertsona baten peskizan egotea ez zala ona uste eben haren buruak. Izan be, erlijiosoen artean obi danez, A. Migel Maria beste komenturen baterako izendatua izan eitekean. Horregaitik erabagi eben Zerutxu Elkarte sortzea. 1966ko azaroaren 15eko dataz onartu eben Madrilen. 1967ko urtarrilaren 22an batzar nagusia egin zan udaletxeko aretoan.*

### **Bertsolari-eguna**

*Manuel Juaristi (Aita Migel Maria) izan zan eragile eta antolatzailea. Juan Ibarzabal "Buztarri"k be baeban zerikusirik, geroago agertuko dodanez. Lehenengoetan, tantaka-tantaka, gitxi batzuk baino ez ziran agertu. Inguruko bertsolariak gebien bat. Ondorengo urteetan, indartuz, edur-bola baten antzera handituz eta abiada bizkorra hartuz joan zan; au-*





*rrean barrapatu abala guztia erakarriz, guztia batuz joian ekintza jator hau.*

*Paperetan agertzen dan lehenengo Bertsolari-eguna 1963koa da, baina lehenagotik be batzen ziran; basieran hurburrekoak bakarrik. Juan Ibarzabal “Buztarri”k bere liburuan (Nire Aztarrenak, Markina-Xemein 1998) emoten dauan leku-kotasuna interesgarria da:*

“Bertsolari gaiaz gabizela aitatu behar Francoren denbora. Orduan beldur izaten ginen egiak esateko; han egoten nintzan zelan moldatu bertsoa, jendeari ulertu eragiteko emon nahi neban mezua. Askotan egoten nintzan aita Migel Marigaz –hau karmeldarra da– kontuak esaten. Ha Markinako komentuan egoan eta bertsozale amorratua zan. Behin esan eustan berak esango eutsola Jose Agirrerri eta bazkari bat egin behar gen-

duala euren komentuan. Ni Mugartegi, Arregi eta Azpillagari esateko geratu nintzan.

Esandako modura han alkartu ginen danok eta bai bazkari ederra jan be. Aita Migel Marik, bazkalondoan jaurtitako bertsuak grabatu egin ebazan, eta Basarriri bialdu eutsozan, gonbidatuz hurrengo urtean bera be etortzeko. Horrela hasi zan Basarri gugaz egun horretan alkartzen. Pentsatu genduan bazkaria urtero, beti egun bardinean mantentzea, eta Pilarika eguna ipini genduan. Handik aurrera urte askotan ospatu zan Bertsolari-Egun hau.

Handik pasatu bako bertsolari asko ez zan izango; bertsolariak be asko izaten ziran, azkenerako danentzako tokirik ez zan izaten. Egun ederra pasatu ondoren Gernikako Arbola dannon artean abestu, eskuak alkarri emon eta hurrengora arte esanda geratzen ginen pozik. Halako lagunarteak edozeinentzat be ez dauko kalterik”.

“Buztari”k maite eban egun hau. Izan be, egun horren sortzailatzat hartu geinke bera A. Migel Mariagaz batera eta berak be halkan agertzen dau bere burua, goiko lerroetan ikusi dogunez.

### **Azken xehetasunak**

Aipatutakoez gainera, bere sasoiari eta osasunez ongi samar zegoenean, hainbat lan idatzi zituen A. Migel Mariak *Karmengo Amaren Egutegian* eta honen ondorengo *Karmelen*. Gero lan haietako batzuk beste aldizkari batzuetan ere argitaratu ziren, esaterako, *Arantzazun...* Berak idatzitako olerkietako bi Santi Onaindiaren *Milla Euskal Olerki Eder* liburuan agertzen dira olerki hautatuen artean. Zehazki hauek dira: *Amari* eta *Gabon*.

Garai hartan ohitura zenez, izenorde hauek erabiltzen zituen bere lanak sinatzean: “Aldako”, “Azkoiti”, “Izarraitz”, “Dundunzar”.

Lerro xume hauek izan bitez Markina-Xemeinen neure ikasle garaian Euskarako eta Literaturako irakasle eta geroago Nagusi eta komunitateko kide urte luzeetan izan nuenari omenaldi gisa.

*Luis Baraiazarra Txertudi*